

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

SEGURAKO UDALA

Segurako Udalaren dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duen Ordenantza Orokorren behin betiko onespena.

Udalbatzak, 2022ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, Segurako Udalaren Dirulaguntzak emateko Erregimena arautzen duen Ordenantza Orokorri hasierako onspena eman zion.

Informazio publikoaren izapidean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez denez, aipatutako Osoko Bilkuraren erabakian aurreikusitakoarekin bat etorri, ordenantza behin betiko onartzen da, eta hori apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez argitaratzen da, ordenantzaren behin betiko testua ondoren txertatzen dena delarik.

Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Segurako Udalaren dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duen Ordenantza Orokorra.

ZIOEN AZALPENA

Administrazio publikoetan dirulaguntzen harreman juridikoaren tratamendu homogeneoa arautzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra onartu da, eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen zutailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatu du.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokor honen (DLO) Zioen Azalpean adierazten da beharrezkoa dela Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legearen printzipio gidariak aurrekontuaren osagaietara eramatea; izan ere, haren osagaietako bat dirulaguntza publikoak dira, eta, aldi berean, gastu publikoaren modalitate garrantzitsua dira.

Dirulaguntza publikoak emateko prozeduran eskatuko den printzipio gidarietako bat gardentasuna da, hain zuzen ere Aurrekontu Egonkortasunaren Legean oinarrituta. Bigarren printzipio nagusia efizientzia eta efikazia da, diru-laguntzen gastu publikoaren kudeaketan, merkatuari eragin diezaioketen distorsioak eta interferentziak ezabatzeke dirulaguntzei buruzko informazio gehiago emanez, eta administrazio publikoen jardueren osagarritasuna eta koherentzia erraztuz, gainjartze oro saihestuz. Eta azkenik, ordenantza honek emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa ere beteko du.

Aurreko premisetan oinarrituta, administrazio publikoen dirulaguntzen jarduerak gaur egun gardentasunari, finantza-kontrolari eta zehapen-araubideari dagokienez eskatzen dituen beharrei behar bezala erantzun nahi zaie.

AYUNTAMIENTO DE SEGURA

Aprobación definitiva de la Ordenanza General reguladora del régimen de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Segura.

El Pleno Municipal en sesión celebrada con fecha 30 de marzo de 2022 aprobó con carácter inicial la Ordenanza General reguladora del régimen de concesión de subvenciones del ayuntamiento de Segura.

Dado que durante el trámite de información pública, no se ha presentado reclamación o sugerencia alguna, de conformidad con lo previsto en el referido acuerdo plenario, la ordenanza queda aprobada definitivamente, lo cual se hace público en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, siendo el texto definitivo de la ordenanza el que se inserta a continuación.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Ordenanza General reguladora del régimen de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Segura.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Con la finalidad de regular un tratamiento homogéneo de la relación jurídica subvencional en las diferentes Administraciones Públicas, se ha aprobado la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, que ha sido desarrollada por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, que aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

Esta Ley General de Subvenciones (LGS) comienza por señalar en su Exposición de Motivos la necesidad de trasladar los principios rectores de la Ley de Estabilidad Presupuestaria a los distintos componentes del presupuesto; siendo uno de sus componentes las subvenciones públicas, que a su vez constituyen una importante modalidad de gasto público.

Uno de los principios rectores que van a exigirse en el procedimiento de otorgamiento de subvenciones públicas, es el de transparencia, inspirado precisamente en la Ley de Estabilidad Presupuestaria. El segundo gran principio es el de eficiencia y eficacia, en la gestión del gasto público subvencional, con una mayor información de las subvenciones para eliminar las distorsiones e interferencias que puedan afectar al mercado, además de facilitar la complementariedad y coherencia de las actuaciones de las distintas Administraciones Públicas evitando cualquier tipo de solapamiento. Y por último, esta ordenanza también cumplirá con el principio de igualdad de mujeres y hombres.

Desde las anteriores premisas se trata de responder adecuadamente a las necesidades que la actividad subvencional de las Administraciones Públicas exige actualmente en los aspectos de transparencia, control financiero y régimen sancionador.

Toki-administrazioei dagokienez, 3.1.b) artikulua aplikazio-eremu subjektiboan sartzen ditu toki-administrazioa osatzen duten erakundeak, eta 9. artikuluan ezartzen du dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartu behar direla, dirulaguntzak eman aurretik, legean aurreikusitako moduan. Legearen 17.2 artikulua ezartzen duenez, toki-korporazioen dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu beharko dira aurrekontua gauzatzeko oinarrien esparruan, dirulaguntzen ordenantza orokor baten bidez edo dirulaguntzen modalitate desberdinetarako berariazko ordenantza baten bidez. Azaldutako arrazoiak direla eta, komenigarritzat jo da Dirulaguntzen Ordenantza Orokor bat egitea, gizarte-, kultura- eta kirol-jarduerak eta beste batzuk barne hartuko dituen, udal-eremuan horien deialdiak ohikoek baino, hain zuzen ere zerbitzu publikoen izaera osagarri-gatik, eta, horrela, dirulaguntzen deialdiak onartu aurretik ezarritako legeko betebeharrak betetzea, zehaztapen orokor horiek kontuan hartuta.

Horretarako, Udal Ordenantza honek Segurako Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen ditu, aldi baterako, ekitaldi honetan eta hurrengoetan.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua.

Araudi honen xedea da Segurako Udalak dirulaguntzak emateko erabiltzen diren prozeduretan aplikatu beharreko araubide orokorra ezartzea, bai eta, hala badagokio, bere sozietate publikoek, zerbitzu tekniko edo bitarteko instrumentalek eta gainerako organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitateek egindako diru-emateetan ere (% 100eko udal-titulartasuna dutenean).

2. artikulua. Aplikazio eremua.

2.1. Araudia Segurako Udalak hirugarren pertsona baten alde egindako funts publiko guztiei aplikatuko zaie, bai persona edo erakunde publikoei baita pribatuei ere, onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduera bat sustatzeko, edo helburu publiko bat edo gizarte-intereseko helburu bat lortzea sustatzeko, bere eskumenen esparruan.

2.2. Ordenantza honen 3.2 artikuluko kudeaketa-printzipioak eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 20. artikuluko informazio-printzipioak aplikatuko zaizkie aurreko artikuluan aipatutako sozietate publikoek edo zuzenbide publikoko erakundeek kontraprestaziorik gabe egin ditzaketen gainerako diru-emateei.

2.3. Ordenantza honen aplikazio-eremuan ez daude sartuta:

a) Segurako Udalaren eta beste administrazio publiko baten arteko diru-ekarpenak.

b) Udalak bere sozietate edo erakunde publikoei egiten dizkien transferentziak, bere jarduera oro har finantzatzeko edo esleituta dituen eginkizunen esparruan jarduera zehatzak egin ditzan.

c) Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen Bosgarren Xedapen Gehigarrian aipatzen diren elkarrean alde egiten diren diru-ekarpenak edo kuotak.

d) Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 73.3 artikuluan udal talde politikoei egindako aurrekontu-ekarpenak.

e) Onuradunak alde aurretik eskatu gabe ematen diren sariak.

Por lo que a las Administraciones Locales se refiere, el artículo 3.1.b) incluye a las entidades que integran la Administración Local en el ámbito de aplicación subjetiva, imponiendo en el artículo 9 la obligación de aprobar con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones, las bases reguladoras de concesión en los términos previstos en la Ley. El artículo 17.2 de la Ley establece que las bases reguladoras de las subvenciones de las Corporaciones Locales se deberán de aprobar en el marco de las bases de ejecución del presupuesto, a través de una ordenanza general de subvenciones o mediante una ordenanza específica para las distintas modalidades de subvenciones. Por los motivos expuestos, se ha considerado la conveniencia de elaborar una Ordenanza General de Subvenciones que contemple las actividades de tipo social, cultural, deportivas y otras, cuyas convocatorias son las más frecuentes en el ámbito municipal, precisamente por su carácter complementario de los servicios públicos, y de esta forma, cumplir con las obligaciones legales impuestas, previas a la aprobación de las diferentes convocatorias de subvenciones, teniendo en cuenta estas determinaciones generales.

Con estos fines, la presente Ordenanza Municipal regula el otorgamiento de las subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Segura, con carácter intemporal, en el presente y en sucesivos ejercicios.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

Es objeto de la presente normativa establecer el régimen general aplicable en los procedimientos que se sigan para la concesión de subvenciones por el Ayuntamiento de Segura y en las entregas dinerarias efectuadas, en su caso, por sus sociedades públicas, servicio técnico o medio instrumental y demás organismos públicos y entidades de derecho público 100 % de titularidad municipal.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

2.1. La normativa será de aplicación a toda disposición de fondos públicos realizada por el Ayuntamiento de Segura a favor de una tercera persona, bien sean personas o entidades públicas o privadas, para fomentar una actividad de utilidad pública o interés social, o para promover la consecución de un fin público o de interés social dentro del ámbito de sus competencias.

2.2. Los principios de gestión del artículo 3.2 de esta Ordenanza y los de información del artículo 20 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, serán de aplicación al resto de las entregas dinerarias sin contraprestación que, en su caso, pudieran realizar las sociedades públicas o entidades de derecho público referenciadas en el artículo anterior.

2.3. No están comprendidas en el ámbito de aplicación de esta Ordenanza:

a) Las aportaciones dinerarias entre el Ayuntamiento de Segura y otras Administraciones Públicas.

b) Las transferencias que realice el Ayuntamiento a sus sociedades o entidades públicas para financiar globalmente su actividad o para que realice actuaciones concretas en el marco de las funciones que tenga atribuidas.

c) Las aportaciones dinerarias o cuotas que se realicen a favor de las Asociaciones a que se refiere la Disposición Adicional Quinta de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

d) Las aportaciones presupuestarias a los grupos políticos municipales del artículo 73.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

e) Los premios que se otorguen sin la previa solicitud del beneficiario.

- f) Gizarte-izaerako urgentziatzeko laguntzak.
- g) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 8/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako gainerakoak.

2.4. Ez dira dirulaguntzat hartuko azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorren 2. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoak.

2.5. Udalak bere sozietate edo erakunde publikoen finantza-oreka bermatzeko ematen dituen dirulaguntzak edo aurrekontu-transferentziak aurrekontu- eta kontabilitate-araudiaren arabera arautuko dira, eta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arau Orokorren 36.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako soilik, dirulaguntza izaera izango dute, eta soberakina udalari itzuli beharko zaio.

3. artikulua. Dirulaguntza Plan edo Programa Estrategikoa.

1. Dirulaguntzak ezarri aurretik, Udalbatzak dirulaguntzen plan estrategiko bat onartuko du, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8. artikuluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 10-15 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2. Oro har, printzipio hauek izango dira dirulaguntzen kudeaketaren buru: publikitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko eraginkortasuna.

II. TITULUA

SEGURAKO UDALAK DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDUREI BURUZKO ARAUDIA

4. artikulua. Pertsona edo erakunde onuradunak.

1. Onuraduna izango da dirulaguntza emateko oinarri diren jarduerak egin behar dituen funts publikoen pertsona edo erakunde hartzailea, edo dirulaguntza ematea zilegi egiten duen egoeran dagoena, eta dirulaguntza bat emateak ez du eskubiderik sortuko etorkizuneko emakidetarako.

2. Ezingo dira onuradun izan:

- a) Epai irmo baten bidez dirulaguntza bat itzultzera kondenatuak, administrazioarekin kontratua ez betetzeagatik, edo dirulaguntzak jaso ezin izateagatik.
- b) Erakundearen ordezkariaren baten legezko bateraezintasuna udaleko langile edo kargu hautetsiekin.
- c) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.
- d) Udalaren beste dirulaguntza bat itzuli gabe egotea.
- e) Beren jarduerarekin izaera sozial edo pertsonaleko diskriminazioak sustatzen dituzten elkarteak.

5. artikulua. Pertsona edo erakunde onuradunen betebeharrak.

Pertsona edo erakunde onuradun guztien betebeharrak dira:

- a) Dirulaguntza ematea oinarritzen duen helburua betetzea.
- b) Dirulaguntza eman duen organoaren aurrean justifikatzea dirulaguntza jasotzeko eskatzen diren betekizunak eta baldintzak betetzen direla, bai eta jasotako funtsen justifikazioa ere, araudi honetan edo dirulaguntza bakoitzaren oinarri arautzaileetan aurreikusitakoaren arabera. Alkatetza-dekretu bidez justifikazio-kontuaren eredu orokorra eta justifikazioa egiteko jarraibide orokorrak onartuko dira.

f) Las ayudas de urgencia de carácter social.

g) Las demás previstas en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

2.4. No tendrán carácter de subvención las establecidas en el apartado 4 del artículo 2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

2.5. Las subvenciones-dotación o transferencias presupuestarias del Ayuntamiento para asegurar el equilibrio financiero de sus sociedades o entes públicos se rigen por la normativa presupuestaria y contable y tendrán para la sociedad, a los solos efectos previstos en el artículo 36.2 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, General Presupuestaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la naturaleza de subvenciones, debiendo reintegrar el exceso al ayuntamiento.

Artículo 3. Plan o Programa Estratégico de Subvenciones.

1. Con carácter previo al establecimiento de subvenciones, se aprobará por el Pleno un plan estratégico de subvenciones conforme a lo dispuesto en el artículo 8 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, y en los artículos 10-15 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.

2. Con carácter general, la gestión de las subvenciones estará presidida por los principios de publicidad, transparencia, concurrencia, objetividad, igualdad y no discriminación, eficacia en el cumplimiento de los objetivos fijados y eficiencia en la asignación y utilización de los recursos públicos.

TÍTULO II

NORMATIVA DE LOS PROCEDIMIENTOS DE CONCESIÓN DE SUBVENCIONES POR EL AYUNTAMIENTO DE SEGURA

Artículo 4. Personas o entidades beneficiarias.

1. Tendrá la condición de persona beneficiaria, la persona o entidad destinataria de los fondos públicos que tenga que realizar las actividades que fundamentan el otorgamiento de la subvención, o que se encuentren en la situación que legitima su concesión, sin que la concesión de una subvención genere derechos a futuras concesiones.

2. No podrán obtener condición de beneficiarios:

- a) Condenados mediante sentencia en firme a devolver una subvención, por incumplimiento del contrato con la administración, o a no poder recibir subvenciones.
- b) Incompatibilidad legal de alguno de los representantes del ente, con personal o cargos electos del ayuntamiento.
- c) No estar al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.
- d) Hallarse pendiente de devolver otra subvención del ayuntamiento.
- e) Aquellas asociaciones que con su actividad promuevan discriminaciones de carácter social o personal.

Artículo 5. Obligaciones de las personas o entidades beneficiarias.

Son obligaciones de todas las personas o entidades beneficiarias:

- a) Cumplir el objetivo que fundamenta la concesión de la subvención.
- b) Justificar ante el órgano concedente el cumplimiento de los requisitos y condiciones exigidos para percibir la subvención, así como la justificación de los fondos percibidos en los términos previstos en la presente normativa o en las bases reguladoras de cada subvención. Mediante Decreto de Alcaldía se aprobará modelo general de cuenta justificativa e instrucciones generales para proceder a la justificación.

c) Dirulaguntza eman duen organoak egiaztapen-jarduerak egitea, eta behar den informazio guztia ematea.

d) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo balibiderik lortuz gero, horren berri ematea dirulaguntza eman duen organoari.

e) Eskabideak aurkezteko gehieneko epea amaitu baino lehen, norgehiagokaren kasuan edo gainerako kasuetan dirulaguntza ematea ebatzi aurretik, edozein motatako zerga-betebeharrak (tokikoak eta gizarte-segurantzakoak barne) beteta dituela eta eskatzailearen nortasuna egiaztatu duela egiaztatzea. Nortasun juridiko zehatzik, fundaziorik, elkarterik edo antzekorik ez duten taldeen kasuan, taldearen edo elkarteraren ordezkariaren zinpeko aitortpenaren bidez justifikatu beharko da hori, Administrazioarekiko zorrik ez dagoela adieraziz. Nolanahi ere, justifikazio horrek, gainera, dirulaguntza onartzeko oinarri arauzaileetan adierazitakoa bete beharko du.

f) Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten agiriak gordetzea, gutxienez dirulaguntza eman ondorengo lau urteetan.

g) Jasotako dirulaguntzei publizitate egokia ematea.

h) Jasotako funtsak itzultzea, itzulketa-espeditente baten xede denean.

6. artikulua. Emateko printzipioak eta moduak.

Araudi honetan aipatzen diren dirulaguntzak publizitate, lehia, objektibotasun eta berdintasun printzipioen arabera eman go dira. Dirulaguntzak norgehiagoka bidez edo zuzenean eman go dira, ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera.

7. artikulua. Norgehiagoka-araubideko dirulaguntzak.

Lehia-norgehiagokatzat hartuko da dirulaguntzak emateko aurkeztutako eskabideak alderatzen dituen prozedura, eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezartzeko, oinarri arautzaileetan eta deialdian alde aurretik ezarritako balorazio-irizpideen arabera, eta irizpide horiek aplikatuz baloraziorik handiena lortu dutenak esleitzeko, betiere eskuragarri dagoen kredituaren barruan deialdian ezarritako mugarekin.

8. artikulua. Emakida arautzen duen Oinarriak egitea.

Oinarri arautzaileak Osoko Bilkurak onartuko ditu. Oinarri horiek, gutxienez, honako hauek jasoko dituzte:

a) Dirulaguntzaren xedea zehaztea.

b) Pertsona edo erakunde onuradunek dirulaguntza lortzeko bete behar dituzten baldintzak.

c) Dirulaguntzaren onuradun diren pertsona juridikoek bete behar dituzten kaudimen- eta eraginkortasun-baldintzak.

d) Dirulaguntza emateko prozedura.

e) Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak eta, hala badagokio, horien haztapena.

f) Dirulaguntza emateko prozedura antolatze, bideratze eta ebazteko eskumena duten organoak.

g) Pertsona edo erakunde onuradunek dirulaguntzaren xedea bete dela eta jasotako funtsak erabili direla justifikatzeko epea eta modua.

h) Organo emailearen alde eratu beharrekotzat jotzen diren berme-neurriak, eratzeko bideak eta ezerezte-prozedura.

c) Someterse a las actuaciones de comprobación por el órgano concedente, aportando cuanta información sea necesaria.

d) Comunicar al órgano concedente la obtención de otras ayudas, subvenciones, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas.

e) Acreditar con anterioridad a la expiración del plazo máximo de presentación de solicitudes, en el caso de concurrencia competitiva previamente a la resolución de la concesión en el resto de los casos, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias de cualquier tipo, incluidas las de carácter local y con la seguridad social y a acreditar la personalidad del solicitante. En el caso de grupos que no tengan una personalidad jurídica concreta, fundación, asociación o similar, este hecho deberá ser justificado mediante la declaración jurada de la persona representante del grupo o asociación, indicando la no existencia de deudas pendientes con la Administración. En todo caso, esta justificación estará además, sujeta a lo que se indique en las bases reguladoras de lapropia subvención.

f) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos al menos durante los cuatro años posteriores a la concesión de la subvención.

g) Dar la adecuada publicidad a las subvenciones percibidas.

h) Proceder al reintegro de los fondos percibidos cuando sea objeto de un expediente de reintegro.

Artículo 6. Principios y formas de concesión.

Las subvenciones a que se refiere la presente normativa se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia, objetividad, e igualdad. Las subvenciones se concederán bien en régimen de concurrencia competitiva o en régimen de concesión directa, de conformidad con lo previsto en la presente Ordenanza.

Artículo 7. Subvenciones en régimen de concurrencia competitiva.

Tendrá la consideración de concurrencia competitiva el procedimiento mediante el cual la concesión de las subvenciones se realiza mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas de acuerdo con los criterios de valoración previamente fijados en las bases reguladoras y en la convocatoria, y adjudicar, con el límite fijado en la convocatoria dentro del crédito disponible, aquellas que hayan obtenido mayor valoración en aplicación de los citados criterios.

Artículo 8. Elaboración de las Bases Reguladoras de la concesión.

Las Bases Reguladoras serán aprobadas por el Pleno. Dichas Bases contendrán como mínimo los siguientes extremos:

a) Definición del objeto de la subvención.

b) Requisitos que deberán reunir las personas o entidades beneficiarias para la obtención de la subvención.

c) Condiciones de solvencia y eficacia que en su caso hayan de reunir las personas jurídicas beneficiarias de subvención.

d) Procedimiento de concesión de la subvención.

e) Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención y, en su caso, ponderación de los mismos.

f) Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión de la subvención.

g) Plazo y forma de justificación por parte de las personas o entidades beneficiarias del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.

h) Medidas de garantía que, en su caso, se considere preciso constituir a favor del órgano concedente, medios de constitución y procedimiento de cancelación.

i) Ordainketa aurreratua eta konturako ordainketak egiteko aukera.

j) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzearen ondorioz, ebazpena aldatzea eragin dezaketen inguruabarrak.

k) Bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bere-rako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik datozenak.

9. artikulua. Gastu-espedita onartzea.

Gastu-espedita deialdiaren aurretik edo deialdiarekin batera onartuko da, eta honako hauek jasoko ditu:

a) Aurrekontu-kreditua badagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

b) Organo eskudunak gastua baimentzea, egin beharreko gastuaren zenbatekoaren arabera.

Deialdia ebazpena emango den aurrekontu-ekitaldiaren aurreko ekitaldian onartu ahal izango da, betiere Dirulaguntzen Erregelamenduaren 56. artikuluko baldintzak betetzen badira.

10. artikulua. Deialdia.

Alkate-udalburuak onartuko du deialdia, eta laguntzak emateko oinarri arautzaileak jasoko ditu. Argitaratu egingo da, jakinaren gainean egon dadin. Dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epea eta modua deialdi bakoitzean ezarriko dira.

11. artikulua. Eskabideen ebaluazioa.

Gaian eskumena duen zerbitzua arduratuko da eskabideak ebaluatzeaz. Laguntzak emateko oinarri arautzaileek Ebaluazio Batzorde bat eta haren funtzionamendu-arauak egotea aurrekusi ahal izango dute. Ebaluazio horrek honako hauek jaso beharko ditu:

a) Emakida-ebazpena emateko erabili behar diren datuak egiaztatzea, diruz lagunduko den jardueraren zuzeneko kostuari arreta berezia jarritz; izan ere, dirulaguntzaren zenbatekoa, helburu bererako eman daitezkeen gainerako laguntza publikoak barne, ez da inola ere kostu hori baino handiagoa izango.

b) Laguntzak emateko oinarri arautzaileetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera ebaluatzea eskabideak.

c) Laguntza emateko proposamena. Bertan, dirulaguntza ematea proposatzen zaien pertsona edo erakunde eskatzaileen zerrenda eta dirulaguntzaren zenbatekoa adierazi beharko dira, ebaluazioa eta hura egiteko erabilitako balorazio-irizpideak zehaztuz.

12. artikulua. Emakida ematea.

Batzordeak edo dagokion zerbitzuaren arduradunak eginda emakida-proposamena ikusita, gastuaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak emakida-erabakia hartuko du. Emakida hori pertsona edo erakunde onuradun bakoitzari jakinaraziko zaio.

Emandako dirulaguntzak argitaratu egingo dira, jakinaren gainean egon daitezzen. Emandako dirulaguntzen zenbatekoak, banaka hartuta, 3.000 eurotik beherakoak direnean, webgunean eta Gardentasun Atarian argitaratuko da emakida. Bestela, dirulaguntza emateko ebazpenaren laburpena argitaratuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Dirulaguntzen datu-base nazionalera igorri beharreko informazioari kalterik egin gabe.

i) Posibilidad de efectuar pagos anticipados y abonos a cuenta.

j) Circunstancias que, como consecuencia de la alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, podrán dar lugar a la modificación de la resolución.

k) Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones y entes públicos o privados.

Artículo 9. Aprobación del expediente de gasto.

La aprobación del expediente de gasto se efectuará antes o a la vez que la convocatoria e incluirá:

a) Certificado de existencia de crédito presupuestario.

b) Autorización del gasto por el órgano competente en razón a la cuantía del gasto a realizar.

La convocatoria podrá aprobarse en ejercicio presupuestario anterior a aquél en el que vaya a tener lugar la resolución de la misma siempre que se cumplan las condiciones del artículo 56 del Reglamento de Subvenciones.

Artículo 10. Convocatoria.

La convocatoria será aprobada por la Alcaldía-Presidencia e incluirá las Bases Regulatoras de la concesión de ayudas y será objeto de publicación para su conocimiento. El plazo y forma de la presentación de las solicitudes de las ayudas económicas se establecerá en cada convocatoria.

Artículo 11. Evaluación de solicitudes.

El servicio competente por la materia será el encargado de realizar la evaluación de las solicitudes. La Bases Regulatoras de la concesión de ayudas podrán prever la existencia de una Comisión de Evaluación y sus normas de funcionamiento. La referida evaluación deberá incluir:

a) Comprobación de los datos en virtud de los cuales debe emitirse la resolución de concesión, prestando especial atención al coste directo de la actividad a subvencionar, ya que en ningún caso el importe de la subvención, incluidas las restantes ayudas públicas que pudieran concederse con la misma finalidad, podrá ser superior a dicho coste.

b) Evaluación de las solicitudes conforme con los criterios de valoración establecidos en las Bases Regulatoras de la concesión.

c) Propuesta de concesión que deberá expresar la relación de personas o entidades solicitantes para quienes se propone la concesión de la subvención, y su cuantía, especificando su evaluación y los criterios de valoración seguidos para efectuarla.

Artículo 12. Otorgamiento de concesión.

A la vista de la propuesta de concesión realizada por la Comisión o el/la responsable del servicio correspondiente, el órgano competente por razón de la cuantía del gasto, adoptará el acuerdo de concesión. Esta concesión será notificada a cada una de las personas o entidades beneficiarias.

Las subvenciones concedidas serán objeto de publicación para su conocimiento. Cuando los importes de las subvenciones concedidas, individualmente consideradas, sean de cuantía inferior a 3.000 euros, la concesión se publicará en la página web y en el Portal de Transparencia. En otro caso, se publicará, además, extracto de la resolución de concesión en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, todo ello sin perjuicio de la información que debe remitirse a la BNDS.

13. artikulua. Zuzeneko dirulaguntzak.

Kasu hauetan zuzenean eman ahal izango dira dirulaguntzak:

- a) Aurrekontuetan izendapen bidez aurreikusitakoak.
- b) Lege-mailako arau batek ematea edo zenbatekoa ezarzteak dakartenak.
